



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 11

138. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
  - IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra (6. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
  - IV.3. Udalaren 2013ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko- finantzarioa (6. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (8. or.).
- V. Udalaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

V.1. 2013ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (9. or.).

V.2. 2013 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (10. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakina 2013ko abenduaren 31n (10. or.).

V.4. 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (11. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (12. or.).

**VI.** Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (13. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

VI.2. Langileak (14. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (15. or.).

VI.4. Inbertsioak (15. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (16. or.).

VI.6. Hirigintza (17. or.).

VI.7. Barañaingo Auditorioaren Fundazioa. (18. or.).

I. eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuak

II. eranskina 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren oroitidazkia

(Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta honako web helbidean:


[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

**I. SARRERA**

Kontuen Ganberak, Bere jarduera-programari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Barañaingo udalerrriak 1,4 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 2013ko urtarrilaren 1ean, 21.120 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako irudi honetan ikusten da:



2013ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazio publikoaren arloa, Barañaingo Udalak berak eta haren erakunde autonomoek, "Lagunak" udal zerbitzuak eta "Luis Morondo" musika eskolak osatua; hauek dira erakunde hauen daturik garrantzitsuenak (eurotan):

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	11.422.624	11.628.698	118
"Lagunak" Udal Zerbitzua	1.988.748	1.961.705	15
"Luis Morondo" musika eskola	891.633	883.816	19
Bateratzearen doitzak	(376.000)	(376.000)	-
<b>Guztira</b>	<b>13.927.005</b>	<b>14.098.219</b>	<b>152</b>

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2013an egin dituen ekarpenak hauek izan dira: 20.000 euro "Lagunak" udal zerbitzuarentzat eta 356.000 euro "Luis Morondo" musika eskolakorentzat.

- Fundazioen sektore publikoa. Udalak, 2003ko urtarrilean, Barañain Auditorioa Fundazioa eratu eta bere babespean ezarri zuen; fundazio honen xedea Barañaingo Arte Eszenikoaren Zentroa kudeatzea eta administratzea da. Fundazio honen balantzea eta emaitzen kontua I. eranskinean daude jasota. 2013ko abenduaren 31n fundazio honek 6 langile zituen bere plantillan.

- Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraioak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Taula honetan erakusten da zerbitzu horiek guztiek Udalari 2013ko ekitaldian ekarri dioten gastua:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2013an
Eskualdeko hiri-garraioa	338.039
Ibai parkea	54.689

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x			
Musika eskola		x		
Hirigintza	x			
Uraren ziklo integrala			x	
Hiri hondakinak			x	
Hiri-garraioa			x	
Bideak garbitzea				X
Parkeak eta lorategiak	x			
Udal kiroldegia	x			X
Atletismo-pistak	x			X
Retegui frontoia		x		
Kirol jardueren kudeaketa	x	x		X
Liburutegia	x			
Ludoteka	x			X
Etxeako arreta	x			X
Gizarte enplegu babestua	x			
Kultur etxea	x			
Hezkuntza	x			
Euskara	x			
Berdintasuna				X
Gazteria	x			X
Herritarrentzako Arreta Bulegoa	x			
Errolda	x			
Herritarren parte-hartzea	x			
Lan-mundura sartzeko Bulegoa	x			X
Immigrazio Zerbitzua	x			X
Telezentroa	x			
Mentor Aretoa	x			
Diru-bilketa	x			
Diru-bilketa exekutiboa	x			X

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2013ko ekitaldiko aurrekontua ez da onetsi. Hori dela eta, Udalak ekitaldi horretan aurrekontu luza-tuarekin jardun du. 2014ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkurak 2013ko kontuak onetsi zituen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2013ko kontu orokorraren in-guruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, kontu orokorraren laburpena ageri da, bere egoera-orri finantzario nagusiekin. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Gainera, bi eranskin daude: bata, Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuekin –kontu horiek, formalki, Udalaren kontu orokorraren atal bat ez badira ere, eranskin gisa sartzen dira txosten honetan– eta bestea Udalak 2013ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkia jasotzen duena.

Barañaingo Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizki-egu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasunaren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Barañaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Zenbateraino bete den Udalak 2013an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.

- Udalaren finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

## III. NORAINOKOA

Barañaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Toki entitatearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoenak: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), zorren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Indarrean dagoen legediaren arabera, Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuak Udalaren kontu orokorrean sartzen ez badira ere, txosten honen eranskin gisa jarri ditugu.

Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontabilitateari eta aurrekontuari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatu dira; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeke teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

Barañain Auditorioa Fundazioaren 2013ko ekitaldiko urteko kontuak ez dira ekitaldi honetan auditatu. Eranskin gisa gehitu ditugu.

**IV. IRITZIA**

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Barañaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

**IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA**

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa 1992koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko "ibilgetuaren" kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2013ko abenduaren 31n, 34,24, milioi eurokoa zen.

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

**IV.2. LEGEZKOTASUNA**

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2013ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

**IV.3. UDALAREN 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA**

Ez da onetsi Udalaren 2013ko ekitaldiko hasierako aurrekontu bateratua, zeina luzatu baitzen 2013ko urtarrilaren 8ko alkatetzaren erabakiz. 15,2 milioi euroko gastuak eta 15,8 milioi euroko diru-sarrerak dauzka. Onetsi diren aurrekontu-aldaketen bidez lortu den behin betiko aurrekontuan, 15,6 milioi euroko gastuak eta 15,8 milioi euroko diru-sarrerak daude.

Aitortutako betebeharrak 13,9 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 89,22ko betetze-maila izan dute. Betetze-mailarik handiena izan duten kapituluak finantza-pasiboarena –ehuneko 100–, inbertsio errealea –ehuneko 91,40– eta ondasun arrunten eta zerbitzuena –ehuneko 90– izan dira; aitzitik, transferentzia arruntetan, kapital-transferentzietan, finantza-gastuetan eta langile gastuetan, betetzea batez bestekoa baino apalagoa izan da –ehuneko 88,24, ehuneko 39,47, ehuneko 42,19 eta ehuneko 88,92, hurrenez hurren–.

Aitortutako eskubideek 14,1 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 89,44,2koa da. Zuzeneko Zuzeneko zergak eta tasak ia osorik gauzatu dira; zeharkako zergetan, berriz, ehuneko 42,66koa baizik ez da izan betetze-maila.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 95 eta ehuneko hiru osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrerei dagokienez, diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 100 dira; diru-sarrera horien ehuneko 49 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantزابidea	Kopurua
Langileak	51	Tributu bidezko diru-sarrerak	51
Bestelako gastu arruntak	44	Transferentziak	49
Inbertsioak	3	Ondare bidezko diru-sarrerak/ Inbertsio errealean besterentzea	0
Finantza-karga	2		
<b>Guztira</b>	<b>100</b>		<b>100</b>

Hona Udalaren 2013ko ekitaldirako aurrekontu bateratuaren betetzeari eta betetze horren 2012ko ekitaldikoarekiko alderaketari buruzko adierazleak (eurotan):

Adierazleak	2013	2012	Aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	13.927.005	13.704.449	2
Likidatutako eskubideak, guztira	14.098.219	14.774.926	-5
Gastuen betetzea (%)	89,22	86,45	
Diru-sarreraren betetzea (%)	89,44	93,2	
Ordainketak (%)	89,68	92,61	
Kobratutakoa (%)	96,47	95,72	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	13.193.422	13.133.881	0
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	13.160.051	13.105.967	0
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	450.833	287.818	57
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	282.750	282.750	0
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.105.843	14.556.684	-3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	7.140.195	7.232.547	-1
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	-7.623	218.242	-103
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	48,71	50,24	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	54,12	55,06	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	453.964	1.353.227	-66
Aurrekontu-emaizta doitua	171.215	1.070.477	-84
Aurrezki gordina	945.791	1.450.717	-35
Finantza-zama (3tik 9ra)	316.120	310.664	2
Aurrezki garbia	629.671	1.140.053	-45
Zorpetze mailaren %	2,24	2,13	
Zorpetze mugaren %	6,7	9,97	
Zorpetze-ahalmena (%)	4,46	7,83	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.398.591	1.296.323	8
Udalaren zor bizia	2.043.693	2.311.664	-12
Zor bizia biztanleko	97	108	-10
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	% 14,49	15,88	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	2,16	1,59	

2013an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 2 gehiago gastatu du; gastu handiago horren arrazoia da, funtsean, langile-gastuek ehuneko 2 eta inbertsio errealek ehuneko 52 egin dutela gora. Bestalde, diru-sarrerak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 5 txikiagoak izan dira. Jaitsiera hori diru-sarreraren kapitulu guztietan gertatu dira, salbu eta zuzeneko zergen kasuan.

Izaera arrunteko gastuek aurreko urtekoen antzeko mailari eusten diote; diru-sarrera arruntek, berriz, ehuneko 3 egin dute behera, funtsean transferentzia arruntek ehuneko 5 gutxitu direlako.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa (diru-sarrerak ken gastu ez-finantzarioak) 0,5 milioi positiboa da, eta ehuneko 66 egin du behera 2012koarekin alderatuta.

Aurrekontu-emaizta doitua 0,2 milioi eurora iritsi da; aurreko urtean, berriz, 1,1 milioi eurokoa izan zen.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak ehuneko 35 eta ehuneko 45 egin dute behera, hurrenez hurren.

Zorpetze-maila ehuneko 2,24koa da, eta ehuneko 6,7ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 1,4 milioi euro (2012an izan zena baino ehuneko 8 gehiago).

Epe luzeko zor bizia 2,0 milioira iristen da, eta 2012an 2,3 milioi eurokoa zen; hau da, ehuneko 12 jaitsi da; zor hori –biztanle bakoitzeko 97 euroko zorra– erakundearen diru-sarrera arrunten ehuneko 14,5 da, gaur egun zorpetze berriak egiteko ehuneko 110eko legezko mugaren azpitik, alegia. 2013an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 2,16 urte beharko liriteke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Zorpetze-maila gutxitu egin da 2012ko ekitaldian zenarekin alderatuta, zor biziaren bolumena arazoizko mailan dago; izan ere, oraindik ere badu zorpetzeko tarte edo ahalmen ekonomikoa.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	453.964
Doikuntzak	-60.548
Finantzatzeko ahalmena	393.416

Ikusi da Barañaingo Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak betetzen dituela, bai eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2012koa gehi ehuneko 1,7); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta zorra ezarritako mugatik beherakoa baita.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruz egin zuen txostenari erreparatuta –2013ko azaroan argitaratu zen–, ikusten da ahalegina egin dela gastuei eusteko. Halere, honako gomendio garrantzitsu hauek oraindik ere ezartzeko daude:

- *Aurrekontua legez aurreikusitako epean prestatu eta onestea, kudeaketarako oinarritzko tresna izan dadin.*
- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende.*
- *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*
- *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa gutxienez.*
- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*
- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea.*
- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espeziifikazioetara egokitzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik eratzea eta kudeatzea, lursailei eta eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak bereizita erregistratuz.*



**V. UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren 2013ko ekitaldiko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala eta erakunde autonomoak)

**V.1. 2013ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**

## Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	(Eurotan)	
							Betetakoa (%)	Aitortutakoaren gainean (%)
1. Zuzeneko zergak	3.600.000	0	3.600.000	3.663.974	3.500.435	163.539	101	25
2. Zeharkako zergak	188.000	0	188.000	80.203	66.011	14.192	42	0
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3.509.449	0	3.509.449	3.396.016	3.253.560	142.456	96	24
4. Transferentzia arruntak	7.975.622	0	7.975.622	6.874.959	6.703.230	171.728	86	48
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	39.074	0	39.074	90.688	85.371	5.316	232	0
6. Besterentzeak Inbertsio errealak	337.985	0	337.985	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	113.500	0	113.500	-7.623	-7.623	0	-6	-0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Aldea (%) Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>15.763.630</b>	<b>0</b>	<b>15.763.630</b>	<b>14.098.219</b>	<b>13.600.985</b>	<b>497.233</b>	<b>89</b>	<b>100</b>

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	(Eurotan)	
							Betetakoa (%)	Aitortutakoaren gainean (%)
1. Langile-gastuak	7.965.270	25.300	7.990.570	7.105.216	6.882.684	222.531	88	51
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	5.923.730	-177.300	5.746.430	5.172.049	4.544.494	627.554	90	37
3. Finantza-gastuak	79.100	0	79.100	33.370	30.743	2.626	42	0
4. Transferentzia arruntak	899.900	100.500	1.000.400	882.786	665.531	217.254	88	6
5. Inbertsio errealak	0	480.300	480.300	438.990	82.468	356.522	91	3
6. Kapital-transferentziak	0	30.000	30.000	11.842	2.209	9.632	39	0
7. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-pasiboak	282.750	0	282.750	282.750	282.750	0	100	2
<b>Guztira</b>	<b>15.150.750</b>	<b>458.800</b>	<b>15.609.550</b>	<b>13.927.004</b>	<b>12.490.882</b>	<b>1.436.122</b>	<b>89</b>	<b>100</b>

## V.2. 2013 EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

(Eurotan)		
Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	14.098.219	14.774.926
- Aitortutako betebeharrak	-13.927.004	-13.704.449
= Aurrekontu-emaizta	171.215	1.070.477
<b>Doikuntzak</b>		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak		
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak		
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak		
= Aurrekontu-emaizta doitua	171.215	1.070.477

## V.3. DIRUZAINITZA-GERAKINA 2013ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	629.248	717.130
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	497.234	570.671
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	731.521	742.955
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	44.028	39.877
+ Ordainketen itzulketak		
– Bilketa zaileko eskubideak	-643.411	-636.300
– Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-124	-73
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	3.309.650	2.750.974
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.436.123	951.434
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	16.447	33.613
+ Diru-sarreraren itzulketak		
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.857.140	1.765.987
– Aplikatzeko dauden gastuak	-60	-60
+ Diruzaintzako funts likidoak	4.381.108	3.632.282
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak		
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.700.706	1.598.438
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	302.115	302.115
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina		
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.398.591	1.296.323

## V.4. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## Aktiboa

Deskribapena	(Eurotan)	
	2013	2012
A Ibilgetua	34.243.971	33.808.318
1 Ibilgetu materiala	24.570.090	24.444.752
2 Ibilgetu ez-materiala	353.631	315.923
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	9.320.250	9.047.643
4 Herri-ondasunak	-	-
5 Finantza-ibilgetua	-	-
C Zirkulatuzailea	5.661.768	5.047.053
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	1.272.782	1.414.710
9 Finantza-kontuak	4.381.169	3.632.343
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	7.817	-
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>39.905.739</b>	<b>38.855.371</b>

## Pasiboa

Deskribapena	(Eurotan)	
	2013	2012
A Funts berekiak	34.665.927	33.830.328
1 Ondarea eta erreserbak	18.964.090	17.622.389
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	843.222	1.341.701
3 Kapitaleko diru-laguntzak	14.858.615	14.866.238
C Epe luzeko hartzekodunak	1.929.978	2.212.728
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	1.929.978	2.212.728
D Epe laburreko hartzekodunak	3.309.834	2.812.315
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	3.309.710	2.812.241
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	124	74
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>39.905.739</b>	<b>38.855.371</b>

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzekoa			(eurotan)	
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012		
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Amaierako erosketak	-	-		
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-		
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	2.715.470	2.756.611		
61 Langile-gastuak	7.102.263	6.948.243	71 Jabetza eta enpresa errenta	631.796	634.850		
62 Finantza-gastuak	33.370	27.914	72 Produktzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.504.361	2.514.087		
63 Tributuak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	1.012.757	1.000.392		
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.280.583	5.383.261					
65 Gizarte-prestazioak	9.291	9.443	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-		
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	6.874.959	7.267.687		
67 Transferentzia arruntak	771.253	767.955	77 Kapitalaren gaineko zergak	227.060	204.619		
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	139.439	178.438		
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornidurak	-	-		
Ustiapen-mozkina	909.083	1.419.868	Ustiatzeagatikoa galerak	-	-		
<b>Guztira</b>	<b>14.105.843</b>	<b>14.556.684</b>	<b>Guztira</b>	<b>14.105.843</b>	<b>14.556.684</b>		

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	909.083	1.419.868
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	3.795	-	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	555
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Aldak. Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharrak (saldo zorduna)	62.469	174.616	84 Aldak. Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharrak (saldo hartzekoduna)	403	95.894
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	843.222	1.341.701	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	-	-
<b>Guztira</b>	<b>909.486</b>	<b>1.516.317</b>	<b>Guztira</b>	<b>909.486</b>	<b>1.516.317</b>

## VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo esanguratsuenen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta haren mendeko erakundeek beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzketen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta aholku nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2013ko ekitaldiko aurrekontua onetsi ez zenez, Udalak ekitaldi horretan aurrekontu luzatuarekin jardun du.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1992koa da. Inbentario hori ez zen formalki onetsi, eta harezkerok ez da eguneratu.

- Udalak 1,4 milioi euroko muga duen diruzaintzako epe laburrerako kreditu bat hitzartu du azkeneko ekitaldi hauetan, unean uneko ordaindu beharrei erantzuteko. 2013ko abenduaren 31n erabilitako kopurua 121.915 eurokoa da. 2014an zeukan mugaeguna, baina ez da kitatu.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2013ko ekitaldiko fakturarik, 2014ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontabilitateari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da, barne-kontrolerako udal-organoeek egintzen gaineko kontu-hartzaitza egin gabe. Horien jarduera “a posteriori” egiten da, eta aurrekontuaren eta haren kitapenaren espedientearen azterketan jartzen du batez ere arreta.

- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2013ko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da:

(Eurotan)			
Ekitaldia	Amortizazioa	%	Metatutakoa (%)
2014	282.750	14,7	14,7
2015	282.750	14,7	29,4
2016	282.750	14,7	44,1
2017	282.750	14,7	58,8
2018-2023	793.750	41,2	100,0
<b>Guztira</b>	<b>1.924.750</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

- Udalak zenbait prozedura judizialean dago sartuta; horietan, beren zenbateko ekonomikoa dela-eta, hauek dira aipagarrienak:

a) Bi pertsonen Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2010eko urtarrilaren 25eko Ebazpenaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak. Udalaren aholkularitza juridikoaren kalkuluen arabera, Udalaren kontrako epai batek –horretarako aukera oso txikiak daudela ematen du– 180.000 euro inguruko galera ekar liezaioke Udalari.

b) Udaleko langile baten kaleratzea baliogabetzeko prozedura, Iruñeko Lan-arloko 1. Epaitegian. Emandako ebazpena irmoa izan ez eta haren aurkako errekurtsoa aurkeztuko bada ere, epaia berresten bada Udalarentzako arriskua 50.000 eurokoa izan daiteke.

Hona gomendatzen duguna:

- *Aurrekontua legez aurreikusitako epean prestatu eta onestea.*
- *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende.*

## VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 7,1 milioi eurokoa da; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 51,02 eta gastu arrunten ehuneko 53,9.

2012ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 2,2 handitu da, honako xehetasunen arabera:

			(Eurotan)
1. kapitulua	2013	2012	Aldea (%)
Goi-karguak	149.097	135.883	9,7
Kabineteetako aldi baterako langileak	142.820	133.157	7,3
Funtzionarioak	1.205.328	1.215.272	-0,8
Lan-kontratadun finkoak	2.372.143	2.162.269	9,7
Aldi baterako lan-kontratadunak	848.643	838.590	1,2
Gizarte-zamak	2.387.185	2.465.775	-3,2
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>7.105.216</b>	<b>6.950.946</b>	<b>2,2</b>

Udalaren Osoko Bilkurak 2011ko plantilla organikoa onetsi zuen. 2012an eta 2013an, berriz, ez da plantilla organikorik onetsi, baina hartan ez da aldaketarik izan. 118 lanpostu dauzka. Guztira, 33 lanpostu hutsik daude, hurrengo tauletan ikus daitekeen bezala:

	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak
Izendapen askea	4	4	-
Funtzionarioak	38	27	11
Lan-kontratadun finkoak	76	54	22
<b>Guztira</b>	<b>118</b>	<b>85</b>	<b>33</b>

2013ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 152 pertsonak egiten zuten lan, 2012an baino 11 gutxiago. Hona xehetasunak:

Langileak	Udala	S.M. Lagunak	Musika eskola	Guztira
Udaleko batzarkideak	1	-	-	1
Aldi baterako langileak - Izendapen askea	4	-	-	4
Funtzionarioak	25	-	-	25
Lan-kontratadun finkoak	53	9	15	77
Aldi baterako lan-kontratadunak	21	6	4	31
Administrazio-kontratadunak	8	-	-	8
Babestutako enplegu soziala	6	-	-	6
<b>Guztira</b>	<b>118</b>	<b>15</b>	<b>19</b>	<b>152</b>

Zehazki Udaleko langileak direnak arlo hauetara atxikirik daude:

Arloak	Kopurua
Zerbitzu orokorrak	18
Polizia	27
Ekonomia-gaiak	7
Kultura	7
Kirola	1
Gizarte zerbitzuak	14
Hirigintza	20
Hezkuntza	24
<b>Guztira</b>	<b>118</b>

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela on-dorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta lan-harremanaren kategoriarako era-bakitakoak direla eta egindako atxikipeak zuzenak direla. 2013ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

Hona gomendatzen duguna:

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 5,2 milioi euro egin dute 2013an, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 37,14 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 39,2 da. 2012. urtearen aldean, ehuneko 2,5 murriztu dira.

Kapitulu honetako gastuen betetze-maila, eta 2012ko ekitaldian izan zenarekiko alderaketa ondoko taula honetan adierazten da:

(Eurotan)			
2. kapitulua	2013	2012	Aldea (%)
Errentamenduak	25.816	25.187	2
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserba-zioa	1.127.890	1.175.383	-4
Inbentariatu ezin den materiala	61.823	68.885	-10
Hornidurak	1.204.574	1.128.084	7
Komunikazioak	49.604	51.488	-4
Garraioak eta pleitak	92.033	122.256	-25
Aseguru-primak	76.463	78.943	-3
Zenbait gastu	411.283	518.158	-21
Beste enpresa batzuek egindako lanak	2.119.564	2.135.138	-1
Zerbitzua dela-eta emandako kalte-ordainak	2.999	3.805	-21
<b>Guztira</b>	<b>5.172.049</b>	<b>5.307.327</b>	<b>-2,5</b>

Kapitulu honi egotzitako honako kontratazio-espeditente hau aztertu dugu (zenbatekoak eurotan, BEZa barne):

Deskribapena	Kontratu mota	Etleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Etleipenaren zenbatekoa
Hiriaren garbiketarako kontratua *	Laguntza	Irekia	667.504	2	665.168

\*Urte anitzeko kontratu bat da, ekainaren 30ean sinatutakoa. Kopuruak urteko zenbatekoei dagokie.

Azterketa horren eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastuak justifikatuta daudela, behar bezala kontabilizatu direla eta egokiro izapidetu direla egiaztatzen da, eta ez dela aplikatzekoa den araudiaren urratze larririk ikusi.

### VI.4. INBERTSIOAK

2013ko ekitaldirako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (0,48 milioi euro) ehuneko 91 bete da, eta 0,44 milioira iritsi da; hau da, ekitaldiko aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 3,15.

Honakoa izan da azken lau ekitaldietan VI. kapituluan aitortutako betebeharrak garbien bilakaera:

Urtea	Aitortutako betebeharrak
2010	2,9 milioi euro
2011	0,23 milioi euro
2012	0,29 milioi euro
2013	0,44 milioi euro

Horrez gainera, kapitulu honi atxiki zaizkion kontratazio-espediente hauek aztertu ditugu (zenbatekoak eurotan, BEZa barne):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	2013an betetakoa
Udaltzaingoaren ibilgailua	Hornidura	Negoziatua	30.000	1	29.995	29.995
Zenbait kale zolatzea (MBC)	Obra	Negoziatua publizitaterik gabe/ Eskaintzarik onena	186.937	3	183.198	164.705
Barañaingo Lakua iragazgaiztea	Obra	Negoziatua publizitaterik gabe/ Eskaintzarik onena	113.055	4	98.146	107.901

Aurreko berrikuspena eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espedienteak izapidetzean dagokien kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da.

#### VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuak 14,1 milioikoak izan dira; ia guztiak eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak izan dira.

Betetze maila ehuneko 89koa izan da; nabarmentzekoa da zeharkako zergen betetze maila txikia, EIOZa, ehuneko 42 bete baita, eta inbertsio errealean besterentzeari dagokiona, ehuneko 0an bete dena.

Zergen bidezko diru-sarrerak, 7,1 milioi, eta transferentzia arruntak, 6,7 milioi, diru-sarreren iturri nagusiak dira. Kapital-transferentziak negatiboak dira, zeren eta 2013an ez baitzen bakarria ere lortu, eta aurreko urteetako haur eskoletako inbertsioetarako diru-laguntza baten amaierako likidazioari zegokion saldoa itzuli behar izan baitzen.

2012ko ekitaldiaren aldean, aitortutako eskubideek ehuneko 4,6 egin dute behera. Hona xehakatzeari:

(Eurotan)			
Diru-sarreren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2012	Aitortutako eskubide garbiak, 2013	2012/2013 aldea (%)
1. Zuzeneko zergak	3.577.126	3.663.974	2,43
2. Zeharkako zergak	141.971	80.204	-43,51
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.513.450	3.396.017	-3,34
4. Transferentzia arruntak	7.267.687	6.874.959	-5,40
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	56.450	90.688	60,65
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.556.684	14.105.842	-3,10
6. Inbertsio errealean besterentzea	62.900	0	-100,00
7. Kapital-transferentziak	155.342	-7.623	-104,91
8. Finantza-aktiboak	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	218.242	-7.623	-103,49
<b>Guztira</b>	<b>14.774.926</b>	<b>14.098.219</b>	<b>-4,58</b>

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreren kapituluak	Aitortutako eskubideak (2012)	Aitortutako eskubideak (2013)	2012/2011 aldea (%)
Lurraren kontribuzioa	2.148.667	2.211.636	2,93
Ibilgailuak	1.000.392	1.012.758	1,24
Lurren balio-gehikuntza	204.619	227.060	10,97
JEZa	223.448	212.520	-4,89
EIOZa	141.971	80.204	-43,51
<b>Guztira</b>	<b>3.719.097</b>	<b>3.744.178</b>	<b>0,67</b>



Kontribuzioak jokaera egokia izan duela ikusi dugu (funtsean, aplikatzekoa den tasak gora egitearen ondorioz), bai eta jarduera ekonomikoarekin lotutako gainerako zergek ere, EIOZaren kasuan izan ezik.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte er-tain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

Kontzeptua	Ehuneko 2/1995 Foru Legea	Udalak aplikatuak (%)
Lurraren kontribuzioa	0,10etik 0,50era	0,273
JEZa	1etik 1,4ra	1,40
Lurren balioaren gaineko zerga		
Gaurkotze-koefizientea	2tik 3,3ra	3
Zerga-tasa	8tik 20ra	11,55
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2tik 5era	5

Tasa horiek aurreko urtean aplikatutakoekin berdinak dira, salbu eta lurraren balioaren gaineko zergaren kasuan aplikatutakoa; azken hori, izan ere, aurreko ekitaldian 0,264koa zen eta 2013ko ekitaldian 0,273ra igo da.

Balorazio-ponentzia azkeneko eguneratzea 2000. urtean onartu zen, 2001etik aurrera indarrean sartzeko; beraz, askogatik gainditu da azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoak balorazio-ponentzia derrigor eguneratzeko jartzen duen bost urteko epea.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, aplikatutako tasak oro har zuzen aplikatu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

Hona gomendatzen duguna:

- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea.*

## VI.6. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalak bere baliabideen eta besterenen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak. Honako pertsona hauek daude atxikita Hirigintza Alorrari:

- Bi administrari.
- Udaleko obra-lantaldearen arduradun bat.

Horrez gainera, 2013an Udalak hirigintza-gaietarako kanpoko aholkularitza bat izan du, era honetan osatua:

- Arkitektura enpresa bat; haren zerbitzuetarako 2013ko ekitaldian 18.148 euroko betebeharrak aitortu ziren.
- Ingeniaritza enpresa bat; haren zerbitzuetarako 2013ko ekitaldian 9.757 euroko betebeharrak aitortu ziren.

Barañaingo Udaleko hirigintza-antolamenduko plan orokorra Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren martxoaren 7ko 137/1991 Foru Aginduz onartu zen. Planeamendu hori ia-ia osorik beteta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. Gaur egun arte, Barañaingo Udalak ez du abiatu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiterik.

2010eko otsailean, Osoko Bilkurak Udalaren lurzoru-ondarea eta haren erregistroa eratzea onartu bazuen ere, harrez gero ez da ezer egin horri dagokionez. 2013an ez da Udalaren lurzoru-ondareko ondasunen besterentzerik izan.

Hirigintza-hitzarmenen erregistroak hiru jasotzen ditu: bat 2006koa, beste bat 2008koa eta hirugarrena 2012koa.

2013ko ekitaldiko hirigintza-jarduketak honakoak dira: HAPOn UC-3B Unitatearen aldaketa puntual egituratzailea, Sustapeneko kontseilariaren 97E/2013 Foru Aginduz 2013ko irailaren 2an behin betiko onetsitakoa, eta UC-21 aldaketa egituratzailea, data bereko 78E/2013 Foru Aginduz onetsitakoa.

Hona gomendatzen duguna:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espeziifikazioetara egokitzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik eratzea eta kudeatzea, lursailei eta eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak bereizita erregistratuz.*

#### VI.7. BARAÑAINGO AUDITORIOAREN FUNDAZIOA.

2003ko urtarrilaren 17an, Barañaingo Udalak "Fundación Auditorio Barañain / Barañain Auditorio Fundazioa" delakoa eratu eta bere babespean hartu zuen. Fundazio honen xedea Barañaingo arte eszenikoaren zentroa, Udalarena, kudeatu eta administratzea da.

I. eranskinean, aldeko iritzia duten urteko kontu auditatuak gehitu dira.

2013ko abenduaren 31n, Fundazioaren plantilla osatzen zuten langileak 6 ziren guztira; ez da, beraz, aurreko ekitaldiaren aldean alderik izan.

Fundazioak, 2013an, 581.157 euroko diru-sarrerak izan zituen, eta 604.414 euroko gastuak egin zituen; beraz, 23.257 euroko defizita izan zuen. 2012an, diru-sarrerak 527.820 eurokoak izan dira eta gastuak, berriz, 591.743 eurokoak; 63.923 euroko defizita izan da, beraz.

Udalak Barañaingo Auditorioa Fundazioari 2013ko ekitaldirako egindako ekarpena, aurrekontuko kontusail izendun batean aurreikusia, 2013ko maiatzaren 14an formalizatu zen, hitzarmen-programa baten bidez, 65.000 euroko zenbatekoan. Nafarroako Gobernuak 37.313 euroko diru-laguntza eman zuen, aurreko ekitaldikoaren ildotik.

2013ko abenduaren 31n, Fundazioaren kontabilitate-ondare garbia positiboa zen, 14.200 euroko zenbatekoarekin (2012ko abenduaren 31n, 37.457 euro positibokoa zen).

Hona gomendatzen duguna:

- *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa gutxienez.*
- *Kontabilitate-sistema bat ezartzea, Fundazioaren jarduerak daukaten kostua ezagutu ahal izateko.*

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas



